

UZTAILAREN 18A, MANDELA EGUNA: NAZIO BATUEK PRESOEN GIZA ESKUBIDEAK ALDARRIKATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

2015eko abenduaren 17an, Nazio Batuetako Asanblada Orokorrak Presoak Tratatzeke Oinarrizko Arauak onetsi zituen, eta izen sinboliko bat eman zien: Mandela Arauak. Horrela, arautegi hori bultzatu duten estatuek omenaldia egin nahi diote Nelson Mandelari, 27 urte kartzelan eman zituen preso politikoari eta, ostean, Hegoafrikako presidentea izan zenari. Keinu horrekin Mandelak giza eskubideen, berdintasunaren, demokraziaren eta bakearen kulturaren alde egindako lana goraipatu nahi izan dute.

Mandela Arauek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipioak aintzat hartzen dituzte eta, kartzela politika ezartzeko orduan, presoek giza eskubideak babesteko norabidean, eragin eta balio handia dute. Azpimarratzekoa da Mandela Arauen oinarria dela Tortura eta bestelako *tratu edo zigor anker, giza gabe edo iraingarrien* Hitzarmena.

Izaera unibertsala eta indar inperatibo eta loteslea izatea helburua duten 122 arau hauek ondoko oinarrizko printzipioa ezartzen dute: "Preso guztiek euren duintasuna eta gizaki bezala duten berezko balioagatik merezi duten tratamendua jasako dute". Horren haritik, "kartzela erregimena bideratua dago kartzela bizitza eta askatasuneko bizitzaren arteko tartea minimora gutxitzea" adierazten du. Hori horrela dela bermatzeko kartzelako baldintzak duinak izan daitezkeen katalogo bat agertzen du.

Mandela Arauek, besteak beste, presoek osasun tratamendu duin bat jasotzeko eskubidea eta familiarekin harremana mantentzeko eskubidea ere aldarrikatzen dute. Zehazki 59. arauak zera adierazten du: "Posible den neurrian, presoak bere etxetik edo bergizarteratze lekutik gertu egongo dira". NNBBen araudi horren 44. arauak dioenez, isolamendua "soilik salbuespeneko kasuetan ezarriko da, azken errekurtsio gisa, ahalik eta denbora gutxienez eta berrikuste independente baten menpe".

Euskal presoek kasuan ez dira nazioarteko araudi hori errespetatzen: isolamendua sistematikoa izaten da, zigor ohikoa eta arrunta, eta aplikazio arbitrarioa du. Isolamenduak presoarengan ondorio psikiko ikaragarriak sortzen ditu. Azken egun hauetan horren testigantza zuzena jasotzen ari gara: muturreko isolamendu kasuen zerrenda luzea ezagutzen dugu: Arantza Zulueta, Harriet Iragi, Juan Ramón Carasatorre, Aritz Arginzoniz, Juan Carlos Besance, Bittor Franco, Xabier García Gaztelu, Fernando García Jodrá, Sebas Lasa, Iker Lima, Angel López Anta, Aitzol Maurtua, Iker Olabarrieta, Patxi Ruiz, Nerea Bengoa, Irantzu Gallastegi, Gurutz



Agirresarobe, Iker Arakama, Rufino Arriaga, Asier Arzallus, Juan Mari Etxebarri, Garikoitz Etxeberria, Jesus Goikoetxea, Roberto Lebrero, Iñigo Vallejo... zerrenda luzea da. Beste alde batetik, ezaguna da duela aste batzuk Fresnesko espetxean isolamenduagatik piztutako gatazka eta tentsioa. Egoera hori salatzeke hainbat preso, Ugaitz Errazkin hernaniarrak tartean, gose greba bati ekin zioten. Egoera horretan 19 egun eman zuten eta, horiekin elkartasuna adierazteko eta arazoa gizarteratzeko hainbat mobilizazio eta ekitaldi egin zituzten.

Nazio Batuen Erakudeak gonbidapen bat luzatzen du: Nelson Mandelaren Nazioarteko Eguna, urtero uztailaren 18an ospatzen dena, Presoen Eskubideen aldeko Mandela Eguna izan dadin, kartzelaratze baldintza duinak bultzatzeko eta presoak ere gizartearen parte direla agerian uzteko.

Hori dela eta, Hernaniko Udalak ondokoa erabakitzen du:

- Hernaniko Udalak bat egiten du Nazio Batuek onetsitako Presoak Tratatzeke Oinarritzko Mandela Arauekin.
- Hernaniko Udalak eskatzen du Euskal Presoei Mandela Arauak aplika dakizkien eta, zehazki, gaixo dauden presoek tratu duin bat jasotzeko eskubidea aldarrikatzen du, baita dispertsioarekin amaitezke ere, hori baita familiarekin harremana mantentzeko eskubidea bermatzeko biderik onena.
- Hernaniko Udalak Mandela Arauak oinarritzat harturik, zigor ohiko eta arrunt bezala aplikatzen den muturreko isolamenduaren erabilera sistematikoa arbuiatzen du. Isolamenduak presoarengan ondorio psikiko ikaragarriak sortzen dituela kontuta izanik, egoera hori pairatzen duten presoekin elkartasuna adierazten du Hernaniko Udalak.
- Nazio Batuen gomendioa jarraituz, uztailaren 18a Presoen eskubideen aldeko Mandela Eguna ospakizuna aintzat hartzen dugu, eta kartzelaratze baldintza arbitrarioen kontra agertu eta presoak gizartearen parte ere badirela aldarrikatzen dugu.

EH Bilduko udal taldea

Hernanin, 2016ko ekainean